

Ermuko Musika Banda sortzeko bidean

Herri honetan musikaz eta musika taldeez ari garenean, normalean rock talde zenbait dagoz kiguru burura, batzuk ezagunak, beste batzuk ez hainbeste. Ostera, musika klasikoaren inguruan mugitzen den jenderik ere badago, gainera gero eta gehiago. Lan honetan ari da Ermuko Musika Eskola. Beraian lan eta proiektuetaz hitz egin dugu Eva Zubizarreta eta M^a Elena Iturriagagoitiarekin, Silvia Izarrarekin batera Eskolako gainbegiraketa lana betetzen dutenak, eta hauxe da kontatu digutena:

-Noiz eta nola sortu zen Ermuko Musika Eskola?

-Lehenago etxean eta era pribatuan klaseak ematen genituen irakasleak ginen. Alboka korua sortzea pentsatu genuenetik, elkartu eta musika eskola txiki bat sortu genuen, baina garai horretan erregelatutako ikasketak ziren. Orain, LOGSE legea dela eta, musika eskolak sortu dira, ikasketa ez erregelatuak emanez. Beraz, Alboka Musika Eskola berez 93-94 ikasturtean sortu zen.

-Nola funtzionatzen du Musika Eskolak?

-Eskola erdi pribatu erdi Udalekoa da. Jabetza Kaltxango Guraso Elkarteak du, dena dago bere izenean. Eusko Jaurlaritzatik diru laguntza jasotzen dugu Udaletik bezela. Hori bidez, gainera, lokala lortu dugu, hots, Zinemako bigarren solairua. Azken diru sarrera ikasleen hileroko kuota da. Ez da pribatua zeren ez dago dirua irabazteko asmorik, bakarrik gastuak estaltzeko. Kaltxangoko zuzendaritzak gainbegiratzen du dena. Eta azkenik, pertsonal aldetik, 13 langile daude; haueetatik hiru egun osoan eta gainontzekoak orduen arabera kontratatutak.

-Alboka barruan zenbat talde eta ikasle dazue?

-Alboka korua dugu, horrela deitua kide guztiak Musika Eskolatik igaro direlako; bertan 65 bat pertsona daude. Gero akordeoi taldean 12 eta txaranga 20. Hala ere, guztira 187 ikasle ditugu, baina gertatzen dena zera da: batzuek talde instrumentalak osatzen dituzte: klarineteak, txirulak,... Horrez gain 5-10 urte bitarteko umeak daude; horiek lengoia musi-



Alboka abesbatza izen handia hartzen ari da.

IGNACIO PEREZ

kala egin ondoren txirula hartzen dute, baina ez dute talde instrumentaletan parte hartzen. Azkenik, instrumentu bat ikastera etorri baina talde instrumentaletan parte hartzea interesatzen ez zaienak ere badira.

-Ikasleen artean baduzue etorkizunean aparteko musikari izan daitezkeen inor?

-Batzuengan finkatu dugu begirada dagoneko, baina orain LOGSerekin, musika ikasketa erregelatu batzuk eramateko dedikazio osoa behar da, ezin da, lehen egin zitekeen moduan, beste ikasketa batzuekin konbinatu. Unibertsitateko karrera moduko bat da, piano-karrera adibidez. Ondorioz, jendeari beldurra sortzen dio musikatik bizitzea erabakitzeak.

-Zer behar da instrumentu bat jotzen ikasteko? Gogoia, jakintza, ekitea edo kualitate bereziren bat?

-Neska-mutikoez hemen sartu aurretik ez lukete ezer jakin behariko; gero eta "birjinagok" etorri askoz hobe, bizioak kentzea oso zaila baita. Jakina, musikari dedikatu behar zaio-

nak kualitateak behar ditu; kualitate horiekin jaitzen da, baina gehienek gozatzeagatik egiten dute, dedikazio handia eskatzen badu ere; umeek egunero ordu erdi bat emango balute ez litzateke gaizki egongo; gero unibertsitate ikasketetan bospasei ordu, baina hori aurrerago izango litzateke, sarrera froga baten ostean, hautapropa gisa, ez hemen. Hemen sarrera froga hori gainditu ahal izateko prestatzen ditugu. Horrenbestez jendea animatu nahi dugu matrikulatu eta has dadin. Adibidez, badago jende heldua, seme-alabekin eta guzti, urrian hasiak eta jadanik txaranga jotzen dutenak.

-Instrumentu oro ikasi al daitezke Albokan?

-Hemen, printzipioz, irakasten diren instrumentu guztiak jotzen ikasi daitezke. Adibidez, iaz bibolina irakastea pentsatu zen, baina matrikulaketa ez zen maisu bat kontratatzeke gutxienera iritsi. Aurten, aldiz, bai izan da, eta ekarri dugu irakaslea. Halere, agian ikasle bakar batengatik ere interesatzen zaigu, etorkizuneko bandan pentsatzen ari garelako. Adibidez, oboe-arekin ikasle bakarra dugu. Baina

Urdaitegia
MAITE

Merkatu Plaza, 40
Telefona: 17 24 12

IZOTZ
KONJELATUAK

Ermuko Merkatua, 54 eta 55 postuak • ☎ 17 41 01
Arrasateko Merkatua • ☎ 77 05 98

OKINDEGIA
Ignacio Peña



Okindegiko ☎ : 17 01 69

Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - behea **ERMUA**

jendea ez da animatzen beste bat aurretik dagoela entzuten ez duen arte. Lehen soilik matrikulatzen ziren kitarra, akordeoi eta pianorako, horiek bakarrik zeudelako. Gaur egun instrumentu askoz gehiago dago. Bestalde, klaseen ordutegia honela da, asteko bi egunetan hiru ordu laurden, eta jada instrumentua hartzen denean ordu erdi bakarrik eta ordubete talde instrumentalarekin.

-Abesten ere irakasten al duzue?

-Lehenik eta behin esan behar da abesbatzan egoteagatik ez dela kuotarik ordaintzen. Eskatzen den gauza bakarra partitura bat jarraitzen jakitea da. Gero teknika batzuk irakasten zaizkie, hala nola, teknika bokalak, arnasketa diafragmatikoa, eta beste trukotxo batzuk. Koruan sartzeko ez dira ahotsak bereizten, partaide batzuek ahots ona dute baina agian entzumenaren aldetik ez dira hain zurrak, eta alderantziz, orduan ondo geratzeko moduan kokatzen ditugu taldearen barnean.

-Zein da orainarte burutu-tako lanaz egiten duzuen balorazioa?

-Orainarte esperientzia arrakastatsua izan da, batipat aurren, matrikulazio aldetik. Baina jende helduari dagokionez, oraindik kostatzen da, matrikulatzeko adin mugarik ez badago ere, edozein sar daiteke, baina helduen artean bakarrik izango dugu 20 bat ikasle.

Bestalde, kontzertu, edo hobe esanda, en-

tzunaldiak dagokienez, martxoaren 17an eskaini berri dugunean jende nahikotxo izan zen, eta ondo irten zitzaigun; denetarik izan zen, eskola bat delako, baina orokorrean pozik geratu ginen. Ermuan ez gaude horrelako entzunaldirik entzuten ohituak, eta jendea musikalki hezitzen hasi behar da. Dagoeneko lortu dugu izen bat. Iaz, adibidez, Madrilen egon ginen,

Eskolaren izenean ez. Irtengo direnak korua, akordeoi taldekoak eta txaranga izango dira. Azken hau KORRIKA igarotzean, eta lehen biak Baionara apirilaren 9an, eta gero Poitiers-era maiatzak 1a inguruan. Gero Bilbo, Derio, Mallabia, Bakio... eta Ermuan Luis Mariri eskainitako omenaldian izango gara, ekainaren 2an, eta ekainaren 17an, On Teodorori egingo zaion omenaldian.

Proiektuei dagokienez, Ermuko Banda sortzea lortu nahi dugu, baina denborarekin. Txarangako jendea hasi berria da, baina lehentasuna ematen ari gataizkie haize instrumentuei. Denbora, jende eta prestakuntza gehiago behar da; 40 bat pertsona eta instrumentu barietate handiagoa beharko lirateke, baina instrumentu batzuk erakargitzaileak dira, batik bat umeentzako.

-Azkenik, Ermuan badago musikarekiko interesik?

-Ermuan interes musikala handia dago, beste herri batzuekin konparatuz ez bada hainbeste nabarmentzen ere. Orain dela 20-25 bat urte desagin zen herriko banda, eta gero diruak ere garrantzi handia du,

ze ez duzu kobratzen eta gainera gastuak eta sakrifizioak jasan behar dituzu. Eskola honetan beste ba-tzuetan baino gutxiago ordaintzen da, baina herriko maila ekonomikoa ere baxuagoa da. Inmigrazioaren kontua ere garrantzitsua da, zeren jende honek beste balore eta lehentasun batzuk ditu. Baina Ermua beti izan da oso musikazalea.

Iosu Etzaniz



Musika Eskolan talde instrumental esberdinak daude.

Euskal Etxean. Korua oso ondo funtzionatzen ari da, askotan ondoegi. Horrela, aurtengo apiril eta maiatzeko asteburu guztiak hartuak ditugu; piska bat agobiatuta gaude.

-Eta hemendik aurrerako proiektu eta entzunaldiak?

-Ikasturtearen bukaeran beste entzunaldi bat eskainiko dugu Ermuan. Kanpoan Musika

ZABALA BURDINDENDA

ETXE HORNIDURA
BRIKOLAJEA
OPARIK
ELEKTRIZITATEA

Zubiaurre, 27
Tfnoa. 17 09 17

Estanko SOLOZABAL

Daniel Solozabal Areitio

Torrekuia, z/g. • Tfnoa. 17 07 33
ERMUA

MUGA



SEXTO CENTENARIO, 7
Teléfono 17 64 77
ERMUA

KODAK

GADIFOL-en

Aukera guztirik
KODAK garrantzia

Komentukoa, z/g.
Tlf. eta Faxe: 17 06 71



Pub

SCORPIO

Zubiaurre, 21 behea
ERMUA